

COOKIEN POLITIKA

www.zorionakzurikutzabank.es webgunearen cookien erabilera.

CHEQUEMOTIVA webguneak (aurrerantzean, Webgunea) cookieak erabiltzen ditu. Cookieak web-zerbitzari baten bidez nabigatzaile batera bidaltzen diren fitxategiak dira, webgune jakin batean erabiltzaileak duen jarduera erregistratzeko. Erabiltzaileari aukeratutako zerbitzuetarako sarbide azkarragoa erraztea da cookien xede nagusia. Horrez gain, webguneak eskaintzen dituen zerbitzuak pertsonalizatzen dituzte cookieak, eta erabiltzaile bakoitzarentzat interesgarria den edo interesgarria izan daitekeen informazioa eskuratu eta eskaintzen dute, erabiltzaileak zerbitzuak nola erabiltzen dituen aintzat hartuta.

Webguneak cookieak erabiltzen ditu erabiltzailearen nabigazioa pertsonalizatu eta errazteko. Cookieak erabiltzaile anonimo batekin eta bere ordenagailuarekin soilik lotzen dira, eta horietatik ezin da atera inolako erreferentziarik erabiltzailearen datu pertsonaletara iristeko. Erabiltzaileak nabigatzailea konfiguratu ahal izango du webguneak bidalitako cookien instalazioa jakinarazi eta atzera botatzeko, eta horrek ez dio mugatuko webguneko edukietara sartzeko aukera. Hala ere, kontuan hartu, kasu horretan, webgunearen funtzionamenduaren kalitatea murriztu daitekeela.

Erregistratutako erabiltzaileak, erregistratzen direnak edo saioa hasi dutenak, zerbitzu pertsonalizatuagoak eta haien ezaugarrietara egokituta dudenak eskuratu ahal izango dituzte, cookietan gordetako datuen eta erregistratzeko unean erabilitako datu pertsonalen arteko konbinazioari esker. Erabiltzaile horiek informazio hori aipatutako xedeetarako erabiltzea berariaz baimentzen dute, cookien erabilera desgaitu edo atzera botatzeko daukaten eskubideari uko egin gabe.

Horrez gain, erabiltzaileak eskatzen dituen zerbitzu guztiak ezagutu ahal izango ditu Webguneak, erabiltzaile bakoitzaren gustu eta lehentasunetara egokitutako informazioa eskaini ahal izateko.

a) Cookieen tipologia, xedea eta funtzionamendua

Cookieak, haien iraupenaren arabera, bi multzotan bana daitezke: «**Saioko cookieak**» eta «**Iraunkorrak**». Erabiltzaileak nabigatzailea ixten duen unean iraungitzen dira lehenengoak. Bigarrenak haien helburua betetzen duten unean arabera iraungitzen dira (esate baterako, erabiltzailea zerbitzuetan identifikatuta mantentzeko helburua izan dezakete) edo, bestela, eskuz ezabatzen direnean.

Horrez gain, cookieak **helburuaren arabera** ere sailkatu daitezke:

- **Errendimendu-cookieak:** Cookie mota honek zerbitzuetan dauden tresnen inguruko zure lehentasunak gogoratzen ditu; beraz, webgunea bisitatzen duzun bakoitzean ez da beharrezkoa izango zerbitzua konfiguratzea. Esate baterako, honako hauek gordetzen dituzte:
 - Bideo edo soinu-tresnen bolumenaren doiketak.
 - Zure nabigatzailearekin bateragarriak diren bideo-transmisioaren abiadurak.
- **Erregistro-cookieak:** Erabiltzailea erregistratu edo saioa hasi ondoren sortzen dira erregistro-cookieak, eta hura zerbitzuetan identifikatzeko erabiltzen dira, helburu hauekin:
 - Erabiltzailea identifikatuta mantentzea; horrela, erabiltzaileak zerbitzu bat, nabigatzailea edo ordenagailua itxiz gero eta beste momentu edo egun batean

zerbitzu horretara sartzen bada, identifikatuta egongo da eta errazagoa izango da nabigatzea, berriro identifikatu beharrik gabe. Funtzio hori ken daiteke erabiltzaileak «itxi saioa» aukera sakatzen badu. Horrela, cookie hori ezabatu egingo da, eta zerbitzura sartzen den hurrengo aldian, erabiltzaileak saioa hasi beharko du identifikatuta egoteko.

- Erabiltzailea zerbitzu jakin batzuetara sartzeko baimena daukan egiaztatzea, esate baterako, lehiaketa batean parte hartzeko.
- **Cookie analitikoak:** Erabiltzaile batek zerbitzu bat bisitatu duen bakoitzean, kanpo-hornitzaile baten tresna batek (Google Analytics, Comscore eta zerrenda honetara gehitu ahal izango diren antzeko beste batzuk, gaur egun ez badaude) cookie analitiko bat sortzen du erabiltzailearen ordenagailuan. Bisitan baino sortzen ez den cookie hau Webguneko zerbitzuek erabiliko dute hurrengo bisitetan, bisitaria modu anonimoan identifikatzeko. Hona hemen lortu nahi diren helburu nagusiak:
 - Cookiearen bidez, nabigatzen ari den erabiltzailea modu anonimoan identifikatu ahal izatea (nabigatzaileak eta gailuak identifikatzen ditu, eta ez pertsonak), eta, beraz, bisitari kopurua gutxi gorabehera kontabilizatzea eta denboran zehar daukaten joera neurtzea.
 - Edukirik bisitatuena, hau da, erabiltzaileentzat erakargarrienak direnak, modu anonimoan identifikatzea.
 - Zerbitzura sartzen ari den erabiltzailea berria den edo bisita errepikatzen ari den jakitea.

Garrantzitsua: Erabiltzailea Webguneko zerbitzu batean erregistratu ezean, cookiea ez da hura identifikatzeko balio duen inolako datu pertsonalekin lotuta egongo. Cookieak helburu estatistikoekin baino ez dira erabiliko, erabiltzaileek gunean duten esperientzia hobetzen laguntzeko asmoz.

- **Hobespenen cookieak:** *Erabiltzailea cookieen kontrolean identifikatuta dagoen ala ez detektatzea da bere helburua, eta cookieen politika onartu duen kontrolatzea, goiko aldeko laukia erakusteari utzi eta nabigazioa errazteko. Saioko cookieak dira.*

b) Nabigatzaile nagusietan cookieak desgaitzeko modua

Normalean, nabigatzaileko cookieak edo zerbitzu jakin bateko cookieak onartzeari utzi ahal zaio.

Nabigatzaile moderno guztiek cookieen konfigurazioa aldatzeko aukera ematen dute. Doiketa horiek zure nabigatzailearen menuko «aukerak» edo «hobespenak» aukeretan egin ohi dira. Horrez gain, zure posta elektronikoaren kudeatzailea konfiguratu edo doako osagarriak instalatu ditzakezu, posta elektroniko bat irekitzean, Web Bug-en deskarga eragozteko.

Webguneak jarraibideak eskaintzen dizkio erabiltzaileari cookieen konfigurazio-menura sartzeko edo baita nabigazio pribatuaren konfiguraziora ere, nabigatzaile nagusietako bakoitzean:

- Internet Explorer: Tresnak - > Interneteko aukerak - > Pribatutasuna - > Konfigurazioa.
Informazio gehiago eskuratzeko, Microsoften euskarrira edo nabigatzailearen laguntzara jo dezakezu.
- Firefox: Tresnak - > Aukerak - > Pribatutasuna - > Historia - > Konfigurazio pertsonalizatua.

- Chrome: Konfigurazioa - > Erakutsi aukera aurreratuak - > Pribatutasuna - > Edukiaren konfigurazioa.
- Safari: Hobespenak - > Segurtasuna.

Informazio gehiago eskuratzeko, Applen euskarrira edo nabigatzailearen laguntzara jo dezakezu.

Haurrak:

Ez dugu 14 urtetik beherakoen daturik jaso nahi. Hortaz, halako datuak adingabearen gurasoen edo tutorearen berariazko baimenik gabe jaso direla baldin badakizu, gurekin harremanetan jarri eta jakinaraztea eskertuko dizugu, datu horiek ezabatu ahal izateko. Horrela, adingabeen eskubideak babesten ari gara, eta gure errespetu osoa eta erabatekoa agertzen diogu indarrean den legeriari.

Eguneratzeak eta aldaketak *cookie*n politikan.

Webguneak Cookieen Politika hau aldatu dezake, lege edo arau-arloko eskakizun berriak betetzeko edo Datuen Babeserako Espainiako Agentziak ematen dituen jarraibideetara egokitzeko. Horrenbestez, erabiltzaileei politika hau aldian behin bisitatzea gomendatzen diegu.

Cookieen Politika honetan aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean, erabiltzaileei horren berri emango zaie webgunean, edo, posta elektronikoko bidez, erregistratutako erabiltzaileei.